

# **GIPUZKOAKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN LEHIAKETA ARAUTEGIA**

## ***REGLAMENTO DE COMPETICIÓN DE LA FEDERACIÓN GIPUZCOANA DE HERRI KIROLAK***

**Donostia, 2015eko martxoaren 18a**

GIPUZKOAKO HERRI KIROL FEDERAZIOKO EZ OHIKO BATZARREAN  
ONARTUA  
*APROBADO EN ASAMBLEA EXTRAORDINARIA DE LA FEDERACIÓN  
GUIPUZCOANA DE HERRI KIROLAK*



## 1.- Eremua:

1.1.- Araudi hau erabiliko da Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak denboraldi bakoitzerako onartzen duen lehiaketa egutegi ofizialaren barruan antolatzen diren herri kirol lehiaketa guzietan.

1.2.- Gipuzkoako Herri Kirolak Federazioak ondorengo diziplina hauek izango ditu integratuta:

- Aizkora
- Asto probak
- Giza probak
- Harri- jasotzea
- Harri-zulatzaila
- Idi probak
- Ingude altxatzea
- Lasto botatzea
- Lasto altxatzea
- Lokotx biltzea
- Ontzi eramatea
- Orga Joko
- Segaa
- Sokatira
- Trontza
- Txinga eramatea
- Zaku eramatea
- Zaldi probak

1.3.- Korrikako diziplina Gipuzkoako Herri Kirolak Federazioan integratuta egon ez arren, garai batean herri kirolen barruan zegoen diziplina denez, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak korrikako probak kontrolatu ahal izango ditu ondorengo baldintzak betetzen badira: korrika eremua itxia izatea (zezen plaza aniloa edo lur eremu hesitua) eta proba mixta bateko zati izatea (korrika eta herri kiroletako beste diziplina bat uztartzen dituen proba).

1.4.- Gipuzkoako Herri Kirol proba ofizial guzietan Euskadiko Herri Kirol Federazioak onarturiko jokoaren arauak beteko dira.

## 2.- Lehiaketa egutegi ofiziala:

2.1.- Gipuzkoako Herri Kirol Federazioaren egutegi ofiziala osatzen duten Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak antolatutako lehiaketa guztiak.

2.2.- Lehiaketa egutegi ofiziala Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko batzar nagusiak onartuko du denboraldi bakoitzaren hasieran.

2.3.- Egutegi horretan sartu ahal izango dira Gipuzkoako

## 1.- Ámbito:

1.1.- *El presente reglamento es aplicable a cuantas competiciones de Herri Kirolak se realicen dentro del calendario oficial de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak.*

1.2.- *La Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak integrará las siguientes disciplinas:*

- Aizkora
- Asto probak
- Giza probak
- Harri- jasotzea
- Harri-zulatzaila
- Idi probak
- Ingude altxatzea
- Lasto botatzea
- Lasto altxatzea
- Lokotx biltzea
- Ontzi eramatea
- Orga Joko
- Segaa
- Sokatira
- Trontza
- Txinga eramatea
- Zaku eramatea
- Zaldi probak

1.3.- *A pesar que la disciplina de "korrika" no está integrada en la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak, fue disciplina de herri kirolak en una época, por lo que la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak controlará las pruebas de "korrika" en las siguientes condiciones: si se corre dentro de un recinto cerrado ( anillo de la plaza de toros o superficie acotada) y si es parte de una prueba mixta (prueba compuesta por una disciplina de herri kriolak y korrika).*

1.4.- *En todas las pruebas oficiales de Herri Kirolak celebradas en Gipuzkoa se aplicará el reglamento deportivo de la federación Vasca de Herri Kirolak.*

## 2.- Calendario oficial de competiciones:

2.1.- *El calendario oficial de competiciones de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak lo componen las competiciones organizadas por la propia Federación.*

2.2.- *El calendario oficial será aprobado por la asamblea general de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak al comienzo de cada temporada.*

2.3.- *En dicho calendario podrán incluirse pruebas o*



## GIPUZKOAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA FEDERACIÓN GUIPUZCONA DE HERRI KIROLK



### LEHIAKETA ARUDIA- REGLAMENTO DE COMPETICIÓN

Orria 3 / 6

talde, erakunde edo Gipuzkoako udalek beren kabuz eta erantzukizunez antolatutako bestelako lehiaketak.

competiciones que clubes, asociaciones o ayuntamientos guipuzcoanos organicen por su cuenta y bajo su responsabilidad, pero que se desarrollan bajo la supervisión de los jueces de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak.

#### 3.- Lehiaketen antolamendua eta kontrola:

3.1.- Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak bere gain hartzen du egutegian sarturik dauden lehiaketa ofizial guztiak antolatzeko erantzukizuna, lehiaketa antolatzeko kasu bakoitzean izendatzen den taldearekin batera.

#### 3.- Organización y control de las competiciones:

3.1.- La Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak asume la responsabilidad de la organización de las competiciones oficiales incluidas en el calendario, junto con el equipo designado en cada caso para la organización de la competición.

3.2.- Lehiaketen antolaketarako erantzukizuna hartzet duen taldea Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak izendatuko du kasu bakoitzean, taldearen oniritzia jaso ondoren. Talde hori izango da lehiaketa aurrera eramateko behar guztiak prestaturik daudela ziurtatuko duen erantzulea Gipuzkoako Herri Kirol Federazioaren aurrean.

3.2.- El equipo que en cada caso se encargue de la organización material de la competición será designado por la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak, de común acuerdo con el mismo. Dicho equipo será el responsable ante la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak de disponer de todo lo necesario para el buen desarrollo de la competición.

3.3.- Gipuzkoako Herri Kirol Federazioaren egutegiko lehiaketa guztietan, epaileak Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko epaile batzordeak izendatuko ditu.

3.3.- En todas las pruebas del calendario competiciones de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak, los jueces serán designados por el comité de jueces de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak.

3.4.- Lehiaketaren bozgorailuen kargu hartzet duenak 18 urtez gorakoa izan behar du, eta euskaraz eta gazteleraez ongi mintzatzeko gai.

3.4.- La megafonía de la competición ha de estar al cargo de una persona mayor de 18 años con conocimiento suficiente del euskera y el castellano.

3.5.- Lehiaketa eremuak guztiz prestatuta egon behar du lehiaketa hasi baino ordu bete lehenago gutxienez. Denbora tarte hori izango dute, hain zuzen, kirolariek beraien materiala prestatu eta beroketa ariketak egiteko.

3.5.- El terreno de juego deberá estar completamente preparado como mínimo una hora antes del inicio de la competición. Los deportistas dispondrán de ese tiempo para preparar su material y realizar el calentamiento.

3.6.- Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko Zuzendari Batzordeak proba ofizialeko baldintzak aldatzeko eskumena izango du.

3.6.- La Junta Directiva de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak tendrá potestad para cambiar las condiciones de las pruebas oficiales.

3.7.- Lehiaketa bakoitzean dagokion diziplina arautegia aplikatuko da.

3.7.- En materia disciplinaria se aplicará el reglamento disciplinario correspondiente a cada ámbito de actuación.

#### 4.- Lehiaketa ofizialetan parte hartzea:

#### 4.- Participación en competiciones oficiales:

4.1.- Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko lizentzia indarrean duten kirolariek soilik parte hartu ahal izango dute araudi honen eskumen esparruan diren lehiaketa ofizialetan.

4.1.- La participación en las competiciones oficiales reguladas por la presente normativa estará limitada a los deportistas con licencia en vigor en la temporada en curso.

#### 5.- Kategoriak:

#### 5.- Categorías:

5.1.- Gipuzkoako Herri Kirol Federazioaren lehiaketa ofizialak kategoria hauen arabera jokatuko dira, bai

5.1.- Las competiciones oficiales de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak se regirán por las siguientes



emakumezkoetan, bai gizonezkoetan.

Kategoriak	
Federatua	Gazteak
	Kintopekoak
	Absoluteoak

## 6.- Lehiaketa era:

### 6.1.- Gipuzkoako txapelketak:

- 6.1.1. Diziplina bakoitzak diziplina horretako Gipuzkoako txapelketako arauak bilduko dituen berariazko arautegia izango du.
- 6.1.2. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak diziplina bakoitzari dagokion txapelketan parte hartzeko deialdia egingo du.

6.1.3. Gipuzkoako txapelketaren batean izena emateko derrigorrezkoa izango da lizentzia eguneratua izatea.

6.1.4. Izen emateak Gipuzkoako Herri Kirol Federazioaren esku jarri beharko dira kasu bakoitzean jarritako epeen barruan. Izen emate orria emailez, faxez edo Gipuzkoako Herri Kirol Federazioaren egoitzan bertan aurkeztu beharko da.

6.1.5. Epez kanko aurkeztutako izen emateak ez dira inongo kasutan onartuko.

6.1.6. Txapelketa batean izena eman duen kirolaria txapelketan parte hartzera derrigortua egongo da.

6.1.7. Edozein motatako arrazoirengatik kirolari batek izena emandako txapelketan ezin izango balu parte hartu, ahalik eta arinen idatziz jakinarazi beharko du Gipuzkoako Herri Kirol Federazioan bere parte hartze ezaren zergatia azalduz. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko Diziplinako epaile bakarra izango da kasuak aztertu eta hartu beharreko erabakien arduraduna.

6.1.8. Banakako diziplinetan Gipuzkoako txapelketa jokatzeko gutxienez hiru partaide izan beharko dira, trontzan diziplinan hiru bikote eta taldekako diziplinetan hiru talde.

6.1.9. Taldekako txapelketetan kirolari batek ezin izango du talde ezberdinietan aritu.

categorías, tanto masculinas como femeninas.

Categorías	
Federado	Juveniles
	Kintopekos
	Absolutos

## 6.- *Tipos de competición:*

### 6.1.- Campeonatos de Gipuzkoa:

6.1.1. Cada una de las disciplinas contará con un reglamento específico que recoja las normas del Campeonato de Gipuzkoa de dicha disciplina.

6.1.2. La Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak realizará la convocatoria para participar en los campeonatos correspondientes a cada disciplina.

6.1.3. Para inscribirse en un campeonato de Gipuzkoa será necesario que la licencia del deportista esté en vigor.

6.1.4. Será necesario entregar la hoja de inscripción en la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak. Podrá entregarse directamente en la oficina de la Federación, por fax o por correo electrónico.

6.1.5. En ningún caso se admitirán las inscripciones realizadas fuera del plazo indicado.

6.1.6. Todo deportista que se inscriba en un campeonato estará obligado a participar en la misma.

6.1.7. Si por cualquier motivo, un deportista inscrito en un campeonato no pudiera participar en la misma, deberá comunicar su ausencia con la máxima antelación posible a la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak explicando el motivo de su ausencia. El Juez Único de Disciplina será quien examine los casos y tome las decisiones oportunas.

6.1.8. Para la celebración de un campeonato de Gipuzkoa, deberán participar como mínimo tres deportistas en competiciones individuales, tres parejas en el campeonato de tronza y tres equipos en disciplinas por equipos.

6.1.9. En un campeonato por equipos un deportista no podrá participar en distintos equipos.



6.1.10. Gipuzkoako txapelketetako dieta-sariak Gipuzkoako Herri Kirol Federazioaren Batzar Nagusian onartutakoak izango dira.

6.1.11. Lizentzia duen edonori Gipuzkoako edozein txapelketa nahiz entrenamenduetan dopatzearen aurkako kontrola egin ahalko zaio.

6.1.12. Dopatzearen aurkako kontrola egiteko eskakizunak Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak bere goi mailako erakundearen bitartez egingo ditu eta emaitzari dagozkion erabakiak eskumena duen Diziplinazko Epaile Bakarrak hartuko ditu.

6.1.13. Txapelketan gertaturiko edozein kirol gertakarien aurrean, kirolariek edo taldeko ordezkariek epaile buruaren azalpenak jasotzeko eskubidea izango dute. Gertakariaren inguruko erreklamazioren bat jarri nahi izanez gero, lehiaketa amaitu ondorengo 48 ordutan egin beharko dute, idatziz, Federazioko egoitzan aurkeztuz.

6.1.14. Diziplina bakoitzeko txapeldunak Gipuzkoako lurrealdea ordezkatuko du 7. Herrialdeen arteko Txapelketan

6.1.15. Edozein diziplinatako Gipuzkoako txapelketan egin beharrekoa aldatuko da diziplina horretan aritzen diren kirolarien gehiengoak, epaile batzordeak edo zuzendari batzordeak hala eskatu eta Batzar Nagusiak bere oniritzia ematen badio.

6.1.16. Kirolari batek ezin izango du Gipuzkoako txapelketetan parte hartu baldin eta urte horretan beste lurrealde desberdin batean lizentzia izapidean eta hango txapelketa batean parte hartu izan badu.

## 6.2.- Apustuak:

6.2.1. Apustuak jarduera pribatuak dira, kirolariek elkarren artean eginko hitzarmena, beraiek hala eskatuz gero Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak proba kontrolatuko du. Horretarako, epaileen eskaera egin beharko diote Gipuzkoako Herri Kirol Federazioari eta apustuaren baldintzak idatziz aurkeztu beharko dituzte Federazioaren egoitzan proba baino 15 egun lehenago.

6.2.2. Euskadiko Herri Kirol Federazioak dopatzearen aurkako kontrola pasatuko du eta baldintzak erakunde bera jarriko ditu.

6.2.3. Sarreren salmentarekin lortutako diru kopuruaren

6.1.10. Las dietas de los campeonatos de Gipuzkoa serán las aprobadas en la Asamblea General de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak.

6.1.11. Todos los deportistas con licencia federativa en vigor pueden ser sometidos a controles anti-dopaje tanto durante la competición como en los períodos de entrenamiento.

6.1.12. Las solicitudes para la realización de controles anti-dopaje las realizará la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak por medio de su órgano superior, y será el Juez Único de Disciplina quien tome las decisiones relacionadas con los resultados adversos.

6.1.13. Ante cualquier incidente deportivo ocurrido durante el transcurso de un campeonato, los deportistas o delegados de los equipos tendrán derecho a recibir explicaciones del jefe de jueces. Si desean presentar alguna reclamación sobre la incidencia, deberán hacerlo por escrito, dentro de un plazo de 48 horas a partir de la finalización de la competición en la sede Federativa.

6.1.14. El campeón de cada disciplina representará a la provincia de Gipuzkoa en el Campeonato de las 7 Provincias.

6.1.15. La labor a realizar en cualquier modalidad del campeonato de Gipuzkoa, podrá ser modificada si así lo pide la mayoría de los deportistas, el Comité de Jueces o la Junta Directiva y lo aprueba la Asamblea General.

6.1.16. Un deportista no podrá participar en el campeonato de Gipuzkoa si previamente ese mismo año ha tenido licencia en vigor en otro territorio y ha participado en ese territorio en un campeonato.

## 6.2.- Apuestas:

6.2.1. Las apuestas son actividades privadas, contratos realizados entre deportistas, y podrán celebrarse bajo la supervisión de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak si así lo solicitan los deportistas. Para ello, deberán presentar en la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak la solicitud de jueces y las condiciones de la apuesta por lo menos 15 días antes de la prueba.

6.2.2. La Federación Vasca de Herri Kirolak será quien realice el control anti-dopaje y dictamine las condiciones.

6.2.3. La Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak cobrará



araberako baremoa kobraztuko du Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak, Batzar Nagusiak onartutako kopuruen arabera.

6.2.4. Antolatzaileek epailetza dietak eta leihatilako tasak apustu egun berean ordaindu beharko dituzte. Dopatzearren aurkako kontrolak sorturiko gastuak kontrolaren emaitza jasotzen denetik hasi eta hamabost eguneko epean ordaindu beharko dira.

### **6.3.- Sariketak eta erakustaldiak**

6.3.1. Sariketen eta erakustaldien antolatzaileak izango dira antolaketaren beharren eta sortu daitezkeen arazoen arduradun bakarrak.

6.3.2. Sariketen eta erakustaldien antolatzaileek hala eskatuz gero, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak proba epaitzeko epaileak jartzeaz arduratuko da.

6.3.3. Eskaerak idatziz Federazioaren egoitzan proba baino 15 egun lehenago aurkeztu beharko dira. Eskaerarekin batera, probaren baldintza guztiak jakinaraziko dituzte.

6.3.4. Sarrera kobraztzen den egun bat baino gehiagoko sariketetan, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak administrazio lanen ordainetan partaide bakoitzeko Batzar Nagusiak onarturiko diru kopurua – tasa- kobraztuko du.

### **6.4.- Errekor eta marka ahaleginak:**

6.4.1. Errekor edo marka ahaleginaren ekitaldiko antolatzaileak izango dira saioan sortu daitezkeen beharren edota arazoen arduradun bakarrak.

6.4.2. Errekor eta marka ahaleginen ardura Euskadiko Herri Kirol Federazioarena izango da. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioa antolatzailearen eta Euskadiko Federazioaren arteko bitartekari izango da soilik.

6.4.3. Eskaerak idatziz Federazioaren egoitzan proba baino 15 egun lehenago aurkeztu beharko dira. Eskaerarekin batera, errekor edo marka ahaleginaren berri eta kirolariaren datuak azalduko dira.

6.4.4. Errekor eta marka ahaleginek sorturiko gastuen inguruan, epailetza dieta eta dopatzearren aurkako kontrolak Euskadiko Herri Kirol Federazioak jarritako baldintza eta epean egin beharko dira.

en función de los ingresos obtenidos por la venta de entradas una cantidad aprobada por la Asamblea General.

6.2.4. Los organizadores deberán pagar las dietas de los jueces y la cantidad correspondiente a los ingresos de las entradas el mismo día de la prueba. Los gastos derivados de la realización del control anti-dopaje se abonarán en un plazo de quince días a partir de la notificación de los resultados.

### **6.3.- Torneos y exhibiciones**

6.3.1. Los organizadores de los torneos y exhibiciones son a todos los efectos los únicos responsables de la organización del evento.

6.3.2. Las pruebas podrán desarrollarse bajo la supervisión de los jueces de la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak si así lo solicitan los organizadores.

6.3.3. La solicitud de jueces así como las condiciones de las pruebas deberán presentarse por escrito en sede federativa por lo menos 15 días antes de la prueba.

6.3.4. En los torneos de más de un día y en los que se cobra entrada, la Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak cobrará por los gastos administrativos una cantidad – tasa – aprobada por la Asamblea General.

### **6.4.- Intentos de récord y marcas personales:**

6.4.1. Los organizadores de los intentos de récord y marcas personales serán los únicos responsables de cubrir las necesidades y problemas que puedan surgir en la prueba.

6.4.2. El control de los intentos de récord y marcas personales corresponde a la Federación Vasca de Herri Kirolak. La Federación Guipuzcoana de Herri Kirolak únicamente actuará como intermediario entre la Federación Vasca y el organizador.

6.4.3. La solicitud de jueces así como descripción del intento de record o marca a realizar junto con los datos del deportista, deberán presentarse por escrito en sede federativa por lo menos 15 días antes de la prueba

6.4.4. Los organizadores deberán pagar las dietas de los jueces así como los gastos derivados de la realización del control anti-dopaje, en el plazo o forma que dictamine la Federación Vasca de Herri Kirolak.